

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2014KO AZAROAREN 4AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 4 DE NOVIEMBRE DE 2014.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTA</u></b>

Keltse Eiguren Alberdi and.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>VOCALÉS</u></b>
----------------------------	-----------------------

Joseba Arregi Martínez jn.  
Ana Helguera Líbano and.  
Elena Coria Yanguas and.  
Álvaro González Pérez jn.  
Kepa Miñambres Llona jn.  
Josu Loroño Goienetxe jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren lauan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a cuatro de noviembre de dos mil catorce, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

La presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado

siguiente:

392.- 2014KO URRIAREN 28AN  
EGINDAKO OHIKO BILERAKO  
AKTA ONESTEA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2014ko urriaren 28ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA

393.- GETXO AQUARIUM UDAL  
AKUARIOA MANTENTZEKO ETA  
ARTATZEKO ADMINISTRAZIO-  
KONTRATU BEREZIA LUZATZEA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXO-AQUARIUM UDAL AKUARIOAREN MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO-LANETARAKO administrazio-kontratu berezia betetzeko B2087048-1 zenbakidun IFK daukan AQUAGESTION DE EQUIPAMIENTOS SL enpresarekin izenpetutako kontratuaren indarraldia URTEBETEZ luzatzea (lehenengo luzapena), 2014ko azaroaren 12tik 2015eko azaroaren 11ra arte, urteko 243.089,05 € gehi % 21eko BEZari dagozkion beste 51.048,70 €-ren truke.

BIGARRENA: Aipatutako luzapenari aurre egiteko 243.089,05 € gehi % 21eko BEZari dagozkion beste 51.048,70 €-ko

392.- APROBACIÓN DEL ACTA DE  
LA ANTERIOR SESIÓN  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA  
28 DE OCTUBRE DE 2014.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 28 de octubre de 2014.

HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA

393.- PRÓRROGA DEL CONTRATO  
ADMINISTRATIVO ESPECIAL DE  
MANTENIMIENTO Y  
CONSERVACIÓN DEL ACUARIO  
MUNICIPAL GETXO-AQUARIUM.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (1ª prórroga), desde el 12/11/2014 al 11/11/2015, la vigencia del contrato suscrito con la razón social AQUAGESTION DE EQUIPAMIENTOS, S.L., con C.I.F.: B2087048-1, para el contrato administrativo especial de MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN DEL ACUARIO MUNICIPAL GETXO -AQUARIUM, por un importe que asciende a 243.089,05.-euros/anuales más 51.048,70.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 243.089,05.-euros más 51.048,70.-euros

beharrezko gastua baimentzea eta xedatzea.

correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**394.- BULEGO-GAIAK  
HORNITZEARREN ENPRESABURU  
BANAREKIN BIDALKETAKO  
EGITEKO ITUNDUTAKO  
ESPARRU-AKORDIOKO PREZIOAK  
BERRIKUSITA ONESTEA.**

**394.- REVISIÓN DE PRECIOS DEL  
ACUERDO MARCO DE  
SUMINISTRO DE MATERIAL DE  
OFICINA CON UN ÚNICO  
EMPRESARIO POR LOTE.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

LEHENA: LYRECO ESPAÑA, SA, izen sozialak (IFK: A79206223) eskatutako prezioen berrikustea onartzea 2014-03-01etik aurrera SORTA BAKOITZEKO ENPRESARI BAKAR BATEKIN BULEGOKO MATERIALAREN HORNIDURAREN ESPARRU-AKORDIORako, % 0,43ko gehikuntzaren arabera (2013ko otsailetik 2014ko otsailera arte Euskal Autonomia Erkidegoko IKPak izandako aldaketaren % 0,5aren %85i dagokiona), honako zenbateko hauetan:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios solicitada por la razón social LYRECO ESPAÑA, S.A, con C.I.F.: A79206223 a partir del día 01.03.2014 para el ACUERDO MARCO DE SUMINISTRO DE MATERIAL DE OFICINA CON UN ÚNICO EMPRESARIO POR LOTE, de acuerdo con el incremento del 0,43% (correspondiente al 85% de 0,5% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de febrero de 2013 al mes de febrero de 2014), por los siguientes importes:

1. SORTA: Papera. 17.398,22.-euro gehienez ere, gehi BEZaren % 21 dagozkion 3.653,63.-euro.

LOTE 1: Papel Hasta un máximo de 17.398,22.-euros más 3.653,63.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

3. SORTA: Bulegoko Materiala. 21.747,78.-euro gehienez ere, gehi BEZaren % 21 dagozkion 4.567,03.-euro.

LOTE 3: Material de Oficina Hasta un máximo de 21.747,78.-euros más 4.567,03.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

4. SORTA: Informatikako kontsumigarriak. 30.446,89.-euro gehienez ere, gehi BEZaren % 21 dagozkion 6.393,85.-euro.

LOTE 4: Consumibles informática Hasta un máximo de 30.446,89.-euros más 6.393,85.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Aurrez aipatutako berrikuspenari aurre egiteko 360,55.-€

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto por importe de 360,55.-€ para

ko gastua baimendu eta prestatzea, ondoren zehazten diren sortetan xehatuta:

- 1. SORTA: Papera: 90,14.-€, BEZa barne.
- 3. SORTA: Bulegoko materiala: 112,67.-€, BEZa barne
- 4. SORTA: Informatikako kontsumigarriak: 157,74.-€ BEZa barne.

**395.- IBILGAILUAK HERRIKO KALETIK ATERATZEKO ZERBITZUAREN PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENA: PAVIGOM, SAUk (IFK: A-20044889) izen sozialak eskatutako prezioen berrikuspena onartzea GETXOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK KENTZEKO ZERBITZUko, eta 2012/05/27tik aurrera izango ditu ondorioak, % 1,62ko gehikuntzarekin eguneratuta (2011ko maiatzetik 2012ko maiatzera arte Euskal Autonomia Erkidegoko IKPak izandako aldaketaren % 1,9aren %85i dagokiona), eguneratutako honako prezioa hauek izanik:

<u>Garabi-zerbitzua</u>	<u>benetako</u>
<u>presentziarekin:</u>	127.109,26.-
euro/urteko gehi BEZa (BEZaren % 18ari dagozkion	22.879,67.-€
2012/08/31 arte eta BEZaren % 21i dagozkion	26.692,94.-€
2012/09/01 arte).	

Prestutasuna: Jarraian zehaztutako unitateko prezioengatik, gehienez ere 22.154,02.-euro (BEZaren

hacer frente a la revisión de precios antes indicada, desglosado por los lotes que se detalla a continuación:

- LOTE 1: Papel: 90,14.-€, I.V.A. Incluido.
- LOTE 3: Material de Oficina: 112,67.-€, I.V.A. Incluido.
- LOTE 4: Consumibles informática: 157,74.-€ I.V.A. Incluido.

**395.- REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE RETIRADA DE VEHÍCULOS DE LA VÍA PÚBLICA.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios solicitada por la razón social PAVIGOM, S.A.U. con CIF: A-20044889 para el SERVICIO DE RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA EN EL MUNICIPIO DE GETXO, con efectos a partir del 27/05/2012, actualizados con un incremento del 1,62% (85% de 1,9 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde el mes de mayo de 2011 al mes de mayo de 2012), resultando los siguientes precios actualizados:

Servicio de grúa con presencia efectiva: 127.109,26.-euros/ anuales más I.V.A. (22.879,67.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. hasta el 31/08/2012 y 26.692,94.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

Disponibilidad: Por los precios unitarios que se detallan a continuación hasta un máximo de 22.154,02.-euros más I.V.A. (3.987,72.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. y 4.652,34.-euros

% 18ari dagozkion 3.987,72.-€ eta BEZaren % 21i dagozkion 4.652,34.-€ 2012/09/01etik aurrera).

- Laneguneko eguneko zerbitzua (06:00etatik 22:00ak arte): 43,92.-€ gehi BEZa (BEZaren % 18ari dagozkion 7,91.-€ 2012/08/31 arte eta BEZaren % 21i dagozkion 9,22.-€ 2012/09/01etik aurrera).

- Jaieguneko eguneko zerbitzua: 65,88.-€ gehi BEZa (BEZaren % 18ari dagozkion 11,86.-€ 2012/08/31 arte eta BEZaren % 21i dagozkion 13,83.-€ 2012/09/01etik aurrera).

- Laneguneko gaueko zerbitzua (22:00etatik 06:00ak arte): 54,90.-€ gehi BEZa (BEZaren % 18ari dagozkion 9,88.-€ 2012/08/31 arte eta BEZaren % 21i dagozkion 11,53.-€ 2012/09/01etik aurrera).

- Jaieguneko gaueko zerbitzua: 82,35.-€ gehi BEZa (BEZaren % 18ari dagozkion 14,82.-€ 2012/08/31 arte eta BEZaren % 21i dagozkion 17,29.-€ 2012/09/01etik aurrera).

BIGARRENA: PAVIGOM, SAUk (IFK: A-20044889) izen sozialak eskatutako prezioen berrikuspena onartzea GETXOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK KENTZEKO ZERBITZUrako, eta 2012/05/27tik aurrera izango ditu ondorioak, % 1,53ko gehikuntzarekin eguneratuta (2011ko maiatzetik 2012ko maiatzera arte Euskal Autonomia Erkidegoko IKPak izandako aldaketaren % 1,8aren %85i dagokiona), eguneratutako honako prezioa hauek izanik:

□ Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 129.054,03.-

correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

- Servicio diurno laborable (entre las 06:00 y las 22:00 horas): 43,92.-€ más I.V.A. (7,91.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. hasta el 31/08/2012 y 9,22.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

- Servicio diurno festivo: 65,88.-€ más I.V.A. (11,86.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. hasta el 31/08/2012 y 13,83.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

- Servicio nocturno laboral (entre las 22:00 y las 06:00 horas): 54,90.-€ más I.V.A. (9,88.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. hasta el 31/08/2012 y 11,53.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

- Servicio nocturno festivo: 82,35.-€ más I.V.A. (14,82.-€ correspondiente al 18% de I.V.A. hasta el 31/08/2012 y 17,29.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. a partir del 01/09/2012)

SEGUNDO: Aprobar la revisión de precios solicitada por la razón social PAVIGOM, S.A.U. con CIF: A-20044889 para el SERVICIO DE RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA EN EL MUNICIPIO DE GETXO, con efectos a partir del 27/05/2013, actualizados con un incremento del 1,53% (85% de 1,8 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde el mes de mayo de 2012 al mes de mayo de 2013), resultando los siguientes precios actualizados:

□ Servicio de grúa con presencia efectiva: 129.054,03.-euros/ anuales más 27.101,35.-euros correspondiente al 21%

euro/urteko gehi BEZaren % 21i dagozkion 27.101,35.-€.

□ Prestutasuna: Jarraian zehaztutako unitateko prezioengatik, gehienez ere 22.492,98.-euro gehi BEZaren % 21i dagozkion 4.723,53.-€.

- Laneguneko eguneko zerbitzua (06:00etatik 22:00ak arte): 44,59.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion 9,36.-€.

- Jaieguneko eguneko zerbitzua: 66,89.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion 14,05.-€

- Laneguneko gaueko zerbitzua (22:00etatik 06:00ak arte): 55,74.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion 11,71.-€.

- Jaieguneko gaueko zerbitzua: 83,61.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion 17,56.-€.

HIRUGARRENA: PAVIGOM, SAUK (IFK: A-20044889) izen sozialak eskatutako prezioen berrikuspena onartzea GETXOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOTIK IBILGAILUAK KENTZEKO ZERBITZUurako, eta 2012/05/27tik aurrera izango ditu ondorioak, % 0,43ko gehikuntzarekin eguneratuta (2011ko maiatzetik 2012ko maiatzera arte Euskal Autonomia Erkidegoko IKPak izandako aldaketaren % 0,5aren %85i dagokiona), eguneratutako honako prezioa hauek izanik:

□ Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 129.608,96.-euro/urteko gehi BEZaren % 21i dagozkion 27.217,88.-€.

□ Prestutasuna: Jarraian zehaztutako unitateko prezioengatik,

de I.V.A.

□ Disponibilidad: Por los precios unitarios que se detallan a continuación hasta un máximo de 22.492,98.-euros más 4.723,53.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

- Servicio diurno laborable (entre las 06:00 y las 22:00 horas): 44,59.-€ más 9,36.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- Servicio diurno festivo: 66,89.-€ más 14,05.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- Servicio nocturno laboral (entre las 22:00 y las 06:00 horas): 55,74.-€ más 11,71.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- Servicio nocturno festivo: 83,61.-€ más 17,56.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

TERCERO: Aprobar la revisión de precios solicitada por la razón social PAVIGOM, S.A.U. con CIF: A-20044889 para el SERVICIO DE RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA EN EL MUNICIPIO DE GETXO, con efectos a partir del 27/05/2014, actualizados con un incremento del 0,43% (85% de 0,5 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde el mes de mayo de 2013 al mes de mayo de 2014), resultando los siguientes precios actualizados:

□ Servicio de grúa con presencia efectiva: 129.608,96.-euros/ anuales más 27.217,88.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

□ Disponibilidad: Por los precios unitarios que se detallan a continuación

gehienez ere 22.589,70.-euro gehi  
BEZaren % 21i dagozkion 4.743,84.-€.

- Laneguneko eguneko zerbitzua  
(06:00etatik 22:00ak arte): 44,78.-€ gehi  
BEZaren % 21i dagozkion 9,40.-€.

- Jaieguneko eguneko zerbitzua:  
67,18.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion  
14,11.-€

- Laneguneko gaueko zerbitzua  
(22:00etatik 06:00ak arte): 55,98.-€ gehi  
BEZaren % 21i dagozkion 11,76.-€.

- Jaieguneko gaueko zerbitzua:  
83,97.-€ gehi BEZaren % 21i dagozkion  
17,63.-€.

LAUGARRENA: GETXOKO  
UDALERRIKO BIDE PUBLIKOTIK  
IBILGAILUAK KENTZEKO  
ZERBITZUaren aipatutako prezioen  
berrikuspenei aurre egiteko, 14.898,84.-  
€-ko gastua baimendu eta prestatzea,  
ondoren zehazten diren sortetan  
xehatuta:

□ 2012/05/27-2013/05/27 ALDIA

- **2012ko ekitaldiari dagokion  
berrikuspenagatik:**

• 2012/05/27-2012/08/31 aldia  
(BEZaren % 18a dago indarrean):

Garabi-zerbitzua benetako  
presentziarekin: 505,02 euro + BEZaren  
% 18ari dagozkion 90,90 euro.

Prestutasuna: 88,02 euro +  
BEZaren % 18ari dagozkion 15,84 euro.

• 2012/09/01-2013/05/27 aldia  
(BEZaren % 21a dago indarrean)

hasta un máximo de 22.589,70.-euros  
más 4.743,84.-euros correspondiente al  
21% de I.V.A.

- Servicio diurno laborable (entre  
las 06:00 y las 22:00 horas): 44,78.-€ más  
9,40.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- Servicio diurno festivo: 67,18.-€  
más 14,11.-€ correspondiente al 21% de  
I.V.A.

- Servicio nocturno laboral (entre  
las 22:00 y las 06:00 horas): 55,98.-€ más  
11,76.-€ correspondiente al 21% de  
I.V.A.

- Servicio nocturno festivo: 83,97.-€  
más 17,63.-€ correspondiente al 21% de  
I.V.A.

CUARTO: Autorizar y disponer el  
gasto necesario por un importe total de  
14.898,84.-euros, para hacer frente a las  
citadas revisiones de precios del  
SERVICIO DE RETIRADA DE  
VEHICULOS DE LA VIA PUBLICA EN  
EL MUNICIPIO DE GETXO, conforme  
al siguiente desglose:

□ PERIODO 27/05/2012-  
27/05/2013

-**Por la revisión correspondiente al  
ejercicio 2012:**

• Periodo 27/05/2012-31/08/2012 (   
IVA en vigor del 18%):

Servicio de grúa con presencia  
efectiva: 505,02 euros +90,90 euros de  
IVA del 18%.

Disponibilidad: 88,02 euros +  
15,84 euros de IVA del 18%

• Periodo 01/09/2012- 27/05/2013  
( IVA en vigor del 21%)

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 1.515,07 euro + 318,16 euro (BEZaren % 21).

Prestutasuna: 264,06 euro + 55,45 euro (BEZaren % 21).

2013/05/27-2014/05/27 ALDIA

- **2012ko berrikuspenaren ondorioetatik 2013ko ekitaldian:**

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 2.020,09 euro + 434,21 euro (BEZaren % 21).

Prestutasuna: 352,08 euro + 73,93 euro (BEZaren % 21).

- **2013ko ekitaldiari dagokion berrikuspenetatik:**

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 1.944,68 euro + 408,38 euro (BEZaren % 21).

Prestutasuna: 338,94 euro + 71,17 euro (BEZaren % 21).

2014/05/27-2015/05/27 ALDIA

- **2012ko berrikuspenaren ondorioetatik 2014ko ekitaldian.**

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 2.020,09 euro + 434,21 euro (BEZaren % 21).

Prestutasuna: 352,08 euro + 73,93 euro (BEZaren % 21).

- **2013ko berrikuspenaren ondorioetatik 2014ko ekitaldian.**

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 1.944,68 euro + 408,38 euro (BEZaren % 21).

Prestutasuna: 338,94 euro + 71,17

Servicio de grúa con presencia efectiva: 1.515,07 euros + 318,16 euros ( IVA del 21%)

Disponibilidad: 264,06 euros +55,45 euros ( 21% IVA)

PERIODO 27/05/2013-27/05/2014

-**Por el efecto de la revisión 2012 en ejercicio 2013:**

Servicio de grúa con presencia efectiva: 2.020,09 euros+ 434,21 euros ( 21% IVA)

Disponibilidad: 352,08 euros +73,93 euros ( 21% IVA)

-**Por la revisión correspondiente al ejercicio 2013:**

Servicio de grúa con presencia efectiva: 1.944,68 euros+408,38 euros ( 21% IVA)

Disponibilidad: 338,94 euros + 71,17 euros ( 21% IVA)

PERIODO 27/05/2014-27/05/2015

-**Por el efecto de la revisión 2012 en el ejercicio 2014.**

Servicio de grúa con presencia efectiva: 2.020,09 euros+ 434,21 euros ( 21% IVA)

Disponibilidad: 352,08 euros +73,93 euros ( 21% IVA)

-**Por el efecto de la revisión 2013 en el ejercicio 2014.**

Servicio de grúa con presencia efectiva: 1.944,68 euros+408,38 euros ( 21% IVA)

Disponibilidad: 338,94 euros +



euro (BEZaren % 21).

71,17 euros ( 21% IVA)

**- 2014ko ekitaldiari dagokion berrikuspenagatik.**

**-Por la revisión correspondiente al ejercicio 2014.**

Garabi-zerbitzua benetako presentziarekin: 458,45 euro + 115,17 euro (BEZaren % 21).

Servicio de grúa con presencia efectiva: 458,45 euros +115,17 euros ( 21% IVA)

Prestutasuna: 95,59 euro + 20,07 euro (BEZaren % 21).

Disponibilidad: 95,59 euros +20,07 euros ( 21% IVA).

**396.- SEXOLOGIAZKO INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA ESKAINTZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO EXPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

**396.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE OFICINA DE INFORMACIÓN Y ASESORÍA SEXOLÓGICA, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

LEHENENGOA: SEXOLOGIAKO INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA BULEGOKO ZERBITZUA publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko arauzko tramitazioa abiarazteko baimena ematea; zerbitzu horren lizitazioko aurrekontua 11.000 €-koa (HAMAIKA MILA eurokoa) izango da, % 21eko BEZ barne.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento negociado sin publicidad, del SERVICIO DE OFICINA DE INFORMACIÓN Y ASESORÍA SEXOLÓGICA, cuyo presupuesto de licitación será de 11.000€ (ONCE MIL euros), IVA del 21% incluido.

Kontratua egikaritzeko epea URTE BATEKOA (1) izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita, baina, inola ere ez, 2015eko urtarrilaren 1a baino lehen, eta BESTE URTEBETEZ luzatu ahal izango da; kontratuaren gehienezko iraupena 2 (BI) urtekoa izango da, guztira.

El plazo de ejecución del contrato será de 1 (UN) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo, si bien nunca antes del día 01/01/2015, siendo prorrogable por OTRO AÑO MÁS (1), sin que pueda la duración total del contrato exceder de los 2 (DOS) años.

BIGARRENA.- Kontratazio administratiboa eraenduko dituzten Administrazio-baldintza Partikularren

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la

eta Teknikoen Pleguak onartzea.

HIRUGARRENA.- Aipatutako zerbitzua kontratatzearen ondoriozko obligazioei aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, urteko 11.000 €-ko (HAMAIKA MILA euroko) zenbatekoarekin, % 21eko BEZ barne.

**397.- ARETXONDO KALEA ASFALTATZEKO PROIEKTUA ONETSI, LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: ARETXONDO KALEA ASFALTATZEKO Proiektua onestea; proiektu hori, Udaleko herri lanen alorreko Ingeniaritza teknikoak idatzi du eta eta Memoria, Planoak, Baldintzen Pleguak eta 69.962,90 €-ko (BEZ barne) guztizko zenbatekodun Aurrekontua jasotzen ditu.

BIGARRENA: Kontratazio administrazioa eraenduko duten Administrazio-baldintza Partikular eta Teknikoen Agiria onartzea.

HIRUGARRENA: Aipatutako obrak Prozedura Negoziatu bidez esleitzeko arauzko tramitazioa abiarazteko baimena ematea.

LAUGARRENA: Aipatutako kontratazioaren ondoriozko obligazioei aurre egiteko beharrezko 69.962,90 €-ko gastua baimentzea.

contratación administrativa.

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 11.000€ (ONCE MIL euros), IVA del 21% incluido.

**397.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE ASFALTADO DE LA C/ARETXONDO, AUTORIZAR EL INICIO DEL EXPEDIENTE DE ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el Proyecto de ASFALTADO DE LA CALLE ARETXONDO, redactado por el Ingeniero técnico municipal de obras públicas, comprensivo de Memoria, Planos, Pliegos de Condiciones y Presupuesto total por importe de 69.962,90 euros, I.V.A. incluido.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el procedimiento negociado, de las obras de referencia.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación citada, por importe de 69.962,90 euros.

**398.- GETXOKO MERKATARITZA  
SUSTATZEAGATIK 2014KO  
GABONETAKO KANPAINA  
DISEINATZEKO, ZUZENTZEKO  
ETA BURUTZEKO ZERBITZUA  
ESLEITZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK  
LEHENENGOA.- Abuztuaren 21eko 4165/2014 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, 2014KO EGUBERRIETAKO KANPAINAREN DISEINU-, ZUZENDARITZA- ETA EKOIZPEN-ZERBITZUA GETXOREN MERKATARITZA-SUSTAPENERAKO esleitzeko izapidetzeari hasiera eman zitzaion 30.000 euroren (HOGEITA HAMAR MILA euro) truke, %21eko BEZa barne. Halaber, zerbitzu hori publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzea erabaki zen.

BIGARRENA.- 2014/09/01ean, hiru enpresei dagokigun kasuko espedientearen hasieraren berri ematen zaie eta beren eskaintzak aurkezteko gonbita luzatzen zaie, horretarako, 10 (hamar) egun baliouduneko epea emanez, gonbidapena jaso ondoko egunetik zenbatzen hasita.

Ondoren, 2014/09/04an, beste enpresa bati dagokigun kasuko espedientearen hasieraren berri ematen zaio eta bere eskaintza aurkezteko gonbita luzatzen zaio, horretarako, 10 (hamar) egun baliouduneko epea emanez, gonbidapena jaso ondoko egunetik zenbatzen hasita.

Behin epe hori amaituta, bi enpresek aurkezten dituzte beren proposamenak.

**398.- ADJUDICACIÓN DEL  
SERVICIO DE DISEÑO, DIRECCIÓN  
Y PRODUCCIÓN DE LA CAMPAÑA  
DE NAVIDAD 2014 PARA LA  
PROMOCIÓN COMERCIAL DE  
GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

ANTECEDENTES DE HECHO  
PRIMERO.- Mediante Decreto de la Alcaldía-Presidencia número 4165/2014, de 21 de agosto, se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE DISEÑO, DIRECCIÓN Y PRODUCCIÓN DE LA CAMPAÑA DE NAVIDAD 2014 PARA LA PROMOCIÓN COMERCIAL DE GETXO, por importe de 30.000€ (TREINTA MIL euros), IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

SEGUNDO.- Con fecha 01/09/2014 se comunica a tres empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 10 (diez) días hábiles a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Posteriormente, con fecha 04/09/2014 se comunica a otra empresa la incoación del expediente de referencia, invitándole a presentar oferta, concediéndole para ello un plazo de 10 (diez) días hábiles a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Finalizado dicho plazo, dos empresas presentan proposición.

HIRUGARRENA.- 2014/09/18an, egintza publikoan, LEHENENGO gutun-azala irekitzen da, dokumentazio orokorra barnebiltzen duena. Dokumentu horiek positiboki kalifikatu ondoren, lizitaziora honako enpresa hauek onartzen dira:

- GERONA GRUP BILBAO S.L.
- LA COMPAÑIA DE COMUNICACIÓN

LAUGARRENA.- Lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa ikusita, ekitaldi berean, BIGARREN gutun-azala irekitzen da, negozioa daitezkeen alderdiak barnebiltzen dituen, hots, alderdi ekonomikoa, honako emaitza honekin:

TERCERO.- El día 18/09/2014 se realiza, en acto público, la apertura del sobre PRIMERO, conteniendo la documentación general. Calificados positivamente tales documentos, se admitió a la licitación a las siguientes empresas:

- GERONA GRUP BILBAO S.L.
- LA COMPAÑIA DE COMUNICACIÓN

CUARTO.- Vista la documentación presentada en el sobre primero se procede, en este mismo acto, a la apertura del sobre SEGUNDO, conteniendo los aspectos sujetos a negociación, a saber, el aspecto económico, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZa SARTU GABE) / PROPOSICION ECONOMICA (IVA NO INCLUIDO)
<b>GERONA GRUP BILBAO S.L.</b>	24.710 € (gehi BEZaren %21ari dagozkion 5.189,26 € / más el 21% IVA que asciende a 5.189,26 €)
<b>LA COMPAÑIA DE COMUNICACIÓN</b>	24.105 € (gehi BEZaren %21ari dagozkion 5.062,05 € / más el 21% IVA que asciende a 5.062,05 €)

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguko 22. atalean aurreikusitako negoziazio-izapideari jarraiki, 2014/09/22an, aipatu lizitazileari kontra-eskaintzak aurkezteko epea ireki dela jakinarazten zaio.

Horretarako gaitutako epea amaituta, GERONA GRUP BILBAO S.L. enpresak kontra-eskaintza aurkezten du.

BOSGARRENA.- 2014/09/25ean, ekitaldi publikoan, HIRUGARREN gutun-azala irekitzen da, NEGOZIATU EZIN DAITEZKEEN ETA AUTOMATIKOKI BALIOZTA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI buruzkoa, honako emaitza honekin:

Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 22/09/2014 se comunica a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

Finalizado el plazo otorgado para ello, la empresa GERONA GRUP BILBAO S.L. ha presentado contraoferta.

QUINTO.- Con fecha 25/09/2014, se realiza en acto público la apertura del sobre TERCERO relativo a los CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACION PRESENTADA
GERONA GRUP BILBAO S.L.	MEMORIA / MEMORIA
LA COMPAÑÍA DE COMUNICACIÓN	MEMORIA Kartela eta triptikoaren eta billetearen adibidea eranstean ditu / MEMORIA Adjunta cartel y ejemplo de triptico y boleto.

Ondoren, eta lizitazioa eraentzen duten Pleguekin bat, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatzen eta zenbakitzen da eta aurkeztutako eskaintzak Getxolan-era igortzen dira dagokien balorazioa egiteko.

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas Getxolan, para que sea realizada la valoración correspondiente.

SEIGARRENA.- 2014/10/10ean, Mirene Zabalgogezcoa Getxolan-eko teknikariak, erreferentzia egiten zaion prozedurara aurkeztutako proposamenen abantaila handiagoari edo txikiagoari buruzko txostena ematen du lizitazioa eraentzen duten Pleguan jasotako balorazio-irizpideekin bat. Balorazio horretan eskaintza ekonomikoa ez da kontuan hartuko. Emaizta honako hau izan da:

SEXTO.- Con fecha 10/10/2014, D<sup>a</sup> Mirene Zabalgogezcoa, Técnica de Getxolan, emite Informe Técnico, sobre la mayor o menor ventaja de las propuestas presentadas al procedimiento de referencia, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en los Pliegos que rigen la licitación, sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	Kanpainaren diseinu eta koordinazio integrala / Diseño y coordinacion integral de la campaña	Kanpainaren irudia / Imagen de campaña	Komunikazio-ekintzak / Acciones de comunicacion	Kaleko animaziorako ekintzak / Acciones para la animacion en calle	Bezeroak arrezagutzea / Reconocimiento a los/as clientes	PUNTUA-ZIOA, GUZTI-RA / PUNTUA-CION TOTAL
GERONA GRUP BILBAO	5	8	0	12	12	37
LA COMPAÑÍA DE LA COMUNICACION	5	8	0	6	10	29

ZAZPIGARRENA.- 2014/10/13an egindako egintza publikoan, lizitatzailerei aurreko puntuan errepikatutako balorazio teknikoaren emaitzaren berri ematen zaie eta GERONA GRUP BIÑBAO, S.L. enpresak kontra-eskaintza aurkeztu duela kontuan hartuta, aurkeztutako

SÉPTIMO.- En acto público celebrado el día 13/10/2014, se da cuenta a los licitadores del resultado de la valoración técnica reproducida en el punto anterior y teniendo en cuenta que ha sido presentada CONTRAOFERTA por la mercantil GERONA GRUP BIÑBAO, S.L. se

gutun-azala irekitzen da honako emaitza honekin:

procede a la apertura del sobre presentado, con el siguiente resultado:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>KONTRA-ESKAINTZAK PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZa SARTU GABE) / CONTRAOFERTAS PROPOSICIÓN ECONÓMICA (IVA NO INCLUIDO)</b>
<b>GERONA GRUP BILBAO</b>	23.983,47.-€ (gehi BEZaren %21ari dagozkion 5.036,52 € / mas el 21% de IVA que asciende a 5.036,52.-€)

Gainerako enpresek ez dute KONTRA-ESKAINTZARIK aurkeztu, beraz, eskaintza ekonomikoak honela geratzen dira:

No han sido presentadas CONTRAOFERTAS por el resto de empresas por lo que las ofertas económicas quedan como sigue:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZa SARTU GABE) / PROPOSICIÓN ECONÓMICA (IVA NO INCLUIDO)</b>
<b>GERONA GRUP BILBAO</b>	23.983,47.-€ (gehi BEZaren %21ari dagozkion 5.036,52 € / mas el 21% de IVA que asciende a 5.036,52.-€)
<b>LA COMPAÑIA DE COMUNICACION</b>	24.105,00.-€ (gehi BEZaren %21ari dagozkion 5.062,05 € / mas el 21% de IVA que asciende a 5.062,05.-€)

ZORTZIGARRENA.- Aurreko ataletan adierazitakoa kontuan hartuta, lizitatuzaileek lortzen dituzten amaierako puntuazioak honako hauek izango dira:

OCTAVO.- Teniendo en cuenta lo relacionado en los apartados anteriores, las puntuaciones finales que obtienen los licitadores son las siguientes:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>Negoziatu ezin daitezkeen alderdiak (automatikoki baliozta ezin daitezkeen irizpideak) / Aspectos no sujetos a negociación (criterios no evaluables automáticamente)</b>	<b>Negoziatu daitezkeen alderdiak (Proposamen ekonomikoa) / Aspectos sujetos a negociación (proposición económica)</b>	<b>GUZTIRA / TOTAL</b>
<b>GERONA GRUP BILBAO</b>	37	51	<b>88 puntu / puntos</b>
<b>LA COMPAÑIA DE COMUNICACIÓN</b>	29	50,74	<b>79,74 puntu / puntos</b>

BEDERATZIGARRENA.- Aurrekariak ikusita, 2014/10/15ean, enpresari agindeia egiten zaio SPKLTBaren 146.4 eta 151 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, zehazki:

NOVENO.- Visto cuanto antecede, en fecha 15/10/2014 se requiere a la empresa a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

- a) Gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren agiri bidezko egiaztapena eta kontratatze gaikuntza, hau da, Klausula Ekonomiko Administratiboen Pleguko 20. artikuluan zerrendatutako agiriak.
- b) Zerga-betebeharrekin eta Gizarte-Segurantzakoekin egunean egotea.
- c) 1.199,17 euroko behin betiko bermea eratu izana.

Espedientean, dagokion dokumentazioa jasota dago, enpresak errekerimendu hori betetzeko aurkeztutakoa.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (SPKLTB), Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua, irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako bertsioan, ekintzaileen eta haien nazioartekotzearen laguntzari buruzkoa.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsia eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKLTB aurkaesaten ez duen heinean.

III.- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 18ko 781/1986 ELD bidez onartutako Testu Bategina eta harekin lotutako aplikagarri den gainerako legedia.

IV.- Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio proposatzen den esleipena egitea, bera baita kontratazio-espeditente honetako kontratazio-organo eskumenduna.

Kontratazio-Zerbitzuko zinegotziaren

- a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 20 del Pliego de Cláusulas económico-administrativas.
- b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 1.199,17 euros.

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable

eskariz, Tokiko Gobernu Batzordeari helarazten zaio aintzat har dezan honako

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- GERONA GRUP BILBAO, S.L. (IFK: B95226932) enpresari 2014KO EGUBERRIETAKO KANPAINAREN DISEINU-, ZUZENDARITZA- ETA EKOIZPEN-ZERBITZUA GETXOREN MERKATARITZA-SUSTAPENERAKO esleitzea 23.983,47 € gehi horren BEZaren %21ari dagozkion 5.036,52 euroren truke.

Kontratuaren egikaritze-epea 2014ko abenduaren 31ra luzatuko da, hura izenpetzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua ezingo da luzatu.

BIGARRENA.- Esleipendunak, SPKLTBaren 156.1 artikulua arabera, Kontratazio-Zerbitzuaren bulegoetan, Foru kaleko 8. zenbakian dagoena, aurkeztu beharko du kontratua administrazio-dokumentuan formalizatzeko, gehenez, erabaki honen jakinarazpena jaso ondoko hamabost egun baliiodunen epean.

#### 399.- BAT-BATEKO ITZULPENA EGITEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

#### EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Alkatetza-

del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO

